

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

ONCEk jaso du Nafarroako Urrezko Domina

Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatearen sarietan goienarekin eskertu du urritasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko erakundeak egiten duen "ezinbesteko lana".

Martes, 03 de diciembre de 2013

Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakariak gaur eguerdian eman dio Foru Komunitatearen sari goiena den [Nafarroako Urrezko Domina](#) Espainiako Itsuen Erakundeari ([ONCE](#)).

Sari horren bidez, Nafarroako Gobernuak erakundeak egiten duen "ezinbesteko lana" eskertu du. Aurten, gainera, eratu eta urritasunak dituzten pertsonak gizarteratzen hasi zenetik 75 urte bete dira.

[Urrezko Domina emateko foru-dekretuan](#), Nafarroako Gobernuak dio ONCEk ikusmen-urritasuna eta bestelako urritasunen bat duten pertsonen arreta emateko "lan goresgarria egin ez ezik herritarrek pertsona horien arazoekiko duten sentsibilizazioan "aurrerapen nabarmena egin duela ere azpimarratu du. Izan ere, hainbat programa sustatu ditu, baita instituzio- eta gizarte-erakundeekin lankidetzan arituta ere, eremu ibilerrazak izatea lortu eta edozein motatako oztopoak kentzeko.

Domina ematea, Nafarroaren Eguneko ekitaldi nagusia, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren klaustru isabelinoan izan da eta, bertan, Yolanda Barcina izan da buru.

Foru Komunitateko agintari nagusiak izan dira ekitaldian, eta Alberto Catalán Higuera Nafarroako Parlamentuko lehendakariak eta Lourdes Goicoechea Zubelzu lehen lehendakariorde eta



Ezkerretik eskuinera: Catalán, López, Ortiz, Fortún, Carballada, Barcina Lehendakaria, Estañán eta Goicoechea con Nafarroako Urrezko Dominarekin.



Miguel Carballada ONCEko eta ONCE fundazioko lehendakaria, Nafarroako Urrezko Domina jaso izana eskertzen

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak ere bertan parte hartu dute.

Urrezko Domina jaso duena Miguel Carballeda Piñeiro ONCEko eta ONCE fundazioko lehendakaria izan da. Harekin batera izan dira Valentín Fortún Arriezu Nafarroaren Onceko Lurralde Kontseiluko lehendakaria, Purificación Ortiz Ortiz ONCEko Nafarroaren lurralde-ordezkarria eta Laura Estañán Tenias eta Ibai López Lizarbe erakundeko afiliatu eta ikasleak.

Gizarteratze-eredu "bakarra eta miretsia"

Nafarroako Lehendakariak, [mintzaldian](#), ONCEk "premia bereziak" dituztenen bizitza hobetzeko eta gizartea kontzientziatzeko egiten duen lana eskertu du.

Erakundeak bultzatzen duen gizarteratze-eredua ere goretzi du, "bakarra" eta "nazioartean miretsia" dela esanez. Jokoaren kudeaketa arduratsuak finantzatzen du eta gaineratu du "hezkuntza, enplegu eta, oro har, herritar guztietan" oinarritzen dela.

Yolanda Barcinak aitortu duenez, ONCEri saria emanda, "Nafarroak etorkizun hobea, bidezkoagoa eta bihozberagoa eraikitzea bideraturuko ekimenak aintzatetsi, babestu eta antzeratzeko sentsibilitatea eta gaitasuna du".

Halaber, onartu du halako ekimen goresgarri eta aberatsez gure gizarteko alderdi negatiboez baino gutxiago hitz egiten dela, baina horregatik ez direla gure garaiaren eta gizarteko dohainen isla.

Bestalde, Miguel Carballeda ONCEko eta ONCE fundazioko lehendakariak, [eskerrak emateko mintzaldian](#), ilusioaz hitz egin du, eta "enpresa, erakunde eta gizartearen benetako eragileak diren pertsonen indarra, hobetzeko gaitasuna eta energia" dela esan du.

Carballedak azpimarratu du urritasunak dituzten pertsonen "herritartasun osoa" lortu nahi dutela eta ez diotela uko egingo "geure jendea etorkizunerako prestatzeko eta balioetan hezitzeko borrokan jarraitzeari", esate baterako, urritasunak dituztenekin eta ez dituztenekin gela eta ahaleginak partekatzea lortzeko.

Amaitzeko, Valentín Fortún ONCEko Nafarroaren lurralde-ordezlariak nafarren babesa ere eskertu du, "75 urtez gure saltokietara gerturatu direlako, gure lana ahalbidetzeko eta goizero lanera joateko jaikitzea den miraria gauzatzeko".

Musika-emanaldiak eta oroitzapenezko liburua

Ekitaldiko musika Carlos Etxeberriak zuzenduriko [San José Abesbatzak](#) eskaini du, eta "Navarra Televisión" katean eman dute.

Taldeak Nafarroako ereserkia, Bob Chilcott-en "The lily and the rose" (Lirioa eta arrosa) konposizio lirikoa eta Karl Jenkins-en "In dulci Jubile" (Poztasun gozoan) abesti melodiko alemana abestu ditu. Ekitaldiaren hasieran ere Nafarroako Gobernuak tronpetak eta tinbalak Espainiako ereserki nazionala jo du.

Amaieran, Barcina Lehendakaria, Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilariak lagunduta, ONCEko ordezkariarekin elkartu da eta erakundeak bete dituen 75 urteen eta fundazioaren 25 urteen oroitzapenezko liburu bat eman diote.

Nafarroako ONCE

ONCEk, Nafarroan, 805 afiliatu baino gehiago eta 214 langile ditu eta 1.200 enplegu eskaintzen ditu guztira, dituen enpresetan eta enpresa partaidetuetan.

ONCEekin eta fundazioekin lotutako 1.234 pertsona daude guztira, Nafarroan dituen enpresetan edo enpresa partaidetuetan. 186 saltzaile ditu, hau da, erretiroagatik baxak bete dira eta eremu horretan % 1eko hazkuntza netoa lortu da 2011rekin alderatuta.

2012an arreta emateko banako 206 programa antolatu, ikaste-postuetara egokitzeko 134 material sorta eta lanpostuetara egokitzeko 32 material sorta prestatu ziren eta 82 ikasleri arreta eskaini zien.

Gizarteratzeko egindako proiektuei dagokienez, ia 17 proiektu onetsi ziren, 208.465 euroko

aurrekontuarekin.

Horietatik hiru proiektu (44.215 eurokoak) enplegua bideraturikoak izan ziren eta beste 14 (164.250 euro) ibilerraztasunera. Zehazki, lau proiektu zentro eta zerbitzuak eraiki eta ekipatzeko izan ziren (101.965 euro), hiru gizartea sentsibilizatzeari buruzkoak (3.366 euro), beste hiru komunikabideen erabilerraztasunerako (33.500 euro), bi elkarte mugimenduko erakundeetako jardueretarako (34.112 euro) eta beste bi enplegu erabilerraztasunaren laguntzetarako (2.400 euro). Beste hiru proiektuak enplegua sortzeari buruzkoa (20.000), enplegu-trebakuntzarako (1.122 euro) eta garraio kolektiboari buruzkoa (12.000) izan ziren.

1988an sortu zenetik iazko urtera arte, ONCE fundazioak 245 proiektu egin ditu Nafarroan, 4.399.179 euroko inbertsioa eginda.

Galería de fotos



Alberto Catalán, Yolanda Barcina eta Lourdes Goicoechea ereserki nazionala eta Nafarroakoa entzun direnean.



Barcina Lehendakaria esku artean ekitaldiaren programa duen Ibai López haurarekin.



Barcina Lehendakaria Carballedak emandako ONCEren oroitzapeneko liburua eskuetan duela. Inguruan daude Forún, Ortiz eta Alli kontseilaria.